
TXANGO ATSEGINA[~]

DEBA ATA MARKINA

Martiaren 26an. Zapatua, Debara joateko eguna. Jakin dagizun, gu Euskerazaleok ara joan oi gara. Ez dakit noiz sortua dan batasun au, baiña urteak dira eta illero-illero goaz ara, euskerearen alde lan egitera, baztarra, estaibadak, erabagiak, akatsak aztertu, eta abar egin ondoren bazkaria euki oi dogu, eta gero etxerantz, Gu Mutriku, Ondarru Markiña'tik zear etxera.

AURRERA

Oraingoan, bidez geunkala-ta, Amoroto'ra joateko asmoa artu genduan. Eta Lekeitiorako bidean, Armiña baño lenago, Atxurra-gaiñean itxi Lekeitiorako bidea eta Ballestegirakoa artu genduan, ni umetan sarri ibillia.

Ementxe artu oi genduan guk geure baserrira igoteko zear bidea.

Aurreratxo joan eta or genduan Beko Errota be: orraxe ekarten genduan guk artoa nai garia uruna egiteko.

Aurreratxoago joanik, or genduzan iru etxe, Balles-tei ibilbide onen asiera, Ikan errota lenengo, Ikan ezker-rra eta abar.

Lenengoa eun eta ainbeste urtekoa, erre egin zan askenengo suetean; baiña bertan bizi diranak, oso jatarrak, dirua ondoen eralgita nobere bizitza barriztuten egoala-ta, barriri barriztu egin dabe oso ederto; zaar-rak eta gazteak bizi dira berton guztiz jator eta bizi naitsu. Emetik gora joi dogu, Txopitte, Atxuriarte eta inguruarteko onetako biztanleok.

TONTORRERA

Guk ezkerretik artu gendun, Bellestei zear, erreka ez erreka; emendik ez urrin, oraintsu egindako zarama tokia aurkitu genduan, polito eta ganoraz egiña; eta gu aurrera erreka ta baserri ondolik; emendik joaten giñan gu Santa Eufemira eta beste toki entzutetsuetara eta ermitako jai aundietara.

Lenago toki onetan zear joatea, nai ta ezker-eskuma etxeak egon eta piñu-tantaiz josita, etzan errez andik ibiltea. Gaur garbi dagoz toki oneik; suetea izan zane-tik garbi dago guzti au; etxeak be Enpan Goikoa eta Bekoa or ziran len, gaur... Gu beintzat, ba-giñoiazan aurrera, eta gorantza igonaz oraintsu egindako bede za-balez tontorrerantza eldu giñan.

AMOROTO'RA

Emendik bide bi, bata Gizaburuaga'ra eta bestea Amoroto'ra. Beerantza artu genduan, baiña zatitxo ba-ten ibili ta gero atzera jo genduan, guk Amoroto'ra jua naia gendulako eta ez Gizaburuaga.

Gora jo gura gendun eta Amoroitorako bidea artu gendun.

Ainbat etxe, eta azken-Arretxika, Santa Barbara ermitapean gengozan, eta nik esan neutson txoferrari jo ezkumatik, orra gora igon bear dogu, Santa Barbarari agur egitera eta an giñan beingoan. Toki zoragarria ur tokia eta santa Barbararen eleizatxoa.

IKUSPEGI EDERRA

An ordu erdi bat egin genduan, ikusmiraz eta ikus-miraz. Zelako toki ederrak dagozan gure errian ! azpian ur-ur Amoroto erria, etxez bete betea zuriz ta do-tore, urrutik Lekeitio ta kantauri itxasoa dizditsu ta bi-zi!, Amoroto-bean eleizea guk bateoa artu genduna eta gaztetan ainbeste otoitz egin genduna.

Oraindiño-be larogeta bost urte ditut, ara noanean, beti joatenaz eleizara, jaunari otoitz egitera.

San Martin, bertako zaindaria, nirentzat Santu aundia da, mirari egille aundia, bertako jentea ondo zain-tzen dakiana. Eta bertakoak Santa goratu, ta gurtzen dabenak.

Nik eta besteak beste ainbeste egiñik, pozez etxera-tu giñan.

AITA ONAINDIA